

Ur beroaren poltsa

PINU, IZEI ETA ALERTZEETATIK erretxina. Haien erretxinatik eta besteenetik: kolofonioa, brea, bikea, berniza, intsentsua, uia, itsasgarria, perfumea, turmentina, urtzailea, sits eta pipientzako uxatzailea, desodorantea, baltsamoa eta gantzugailua, arazgarria, kautxua, hulea, golf pilota eta makila, jostailua, borragoma, pneumatikoa, arropa iragazgaitza, Arabiako goma, kosmetikoa, koloregaia, grisalla, ardoa argitzekoa, jakien lurringai eta egonkortzailea, botika, txigoma, gozokia, litografia, zigarro paperen eta zigiluen goma, haxixa nahastekoa, material piroteknikoa, arrantzarako eta geziertzako pozoia, kable elektrikoen isolatzailea, letaginen sustraiaren osagarria, intsektizida, biska eta lika, opioa, morfina, kodeina, tebaina, papaberina, noskapina, oripabina, garatxoak herpesak eta maskurrak kentzekoak, lastaira, burkoa, tiritia, esparatrapua, izotz aurkakoak eta hozgarriak, gomazko eskularruak, zinta itsasgarria, preserbatiboa, oinetakoen barne zola, bainujantzia eta bainutxanoa, tenis pilota, ping-pong sarepala, eskitarako betaurrekoak, ur beroaren poltsa, puxika, aulkia, zela, margoa, transmisio uhala, gomazko titia, urpekarri jantzia, alfonbra, edukiontzia,



ANTRAMIR - CC BY SA

Erretxina biltzeko ontzia.

bizikleta gurpil zorroen partxea, flotagailua, grafikagintzarako mantila, heroina, katiuska... Zenbat hitz landareren baten izerdiari lotuta! Zenbat bizipoz eta min! Bainujantzia, ur beroaren poltsa, txorietako biska, borragoma, txigoma...

Landareari zauria egin eta isurkina biltzen dugu. Zauria ixteko jariatzan du, zauritik sor daitezkeen kalteak eragotzi nahi ditu. Hortik izerdiak gatzatzeko duen joera. Gatzatu, gogortu eta erretxina eginda itxi. Kaltea eragin

dezaketan mikroorganismoei atea itxi eta orbaintzea erraztu. Bestetik, landare askoren izerdia pozoitsu da. Kosk egin eta zauria egingo liokeen animalia ere atzeratu egiten du. Itxuraz, horiek dira izerdi batzuk erretxinatsu izateko arrazoi nagusiak.

Guk, hala ere, zauria ixteko jariatuko duen horren bila, ebaki egingo dugu. Izan ere, zigarro-papera itsasgarria behar dugu! ■



Irakurleak galdezka

Kaixo. Gorosti bakar bat landatzekotan gabilta, eta jakin gura nuke ea bizitzeko, hazteko, arra bada, landare eme baten beharra ote duen eta alderantziz. Emea izatekotan, arrik ez izanda, aterako lituzke bolatxo gorriak?

Akaso hobe litzateke ar bat eta eme bat ipintzea? A, eta gorostiaren fruitu gorri horiek, pozoitsuak dira?

Susana Uribetxeberria (Oñati)

Kaixo Susana. Gorostia espezie dioikoa da, hau da, batzuk arrak eta besteak emeak dira. Hazi eta bizitzeko, bakarka, ederki moldatzen dira. Hazteko ez dute elkarren beharrik. Heldutasunean biak loratzen dira. Arraren loreak polena hedatuko du, eta emearen lorea ernaldu beharko du. Ondoren, arraren lorea ihartu eta erori egingo da; emearenak pipitta gorria ekarriko du, barruak haziak izango dituen. Emeak arraren beharra

du, baina ez du derrigor aldamenen izan behar. Loreok nektarra dute, batetik bestera polena garraiatuko duten intsektuak erakartzeko: erleak, liztorrak, euliak, tximeleta txikiak... Hala ere, onena biak jartzea da. Bereizten ikasiko duzu, hazkundera duten aldea, loretan...

Pipitta gorriak toxiko arinak direla esan ohi da. Tokikotasuna, badakizu, dosiaren arabera da. Tokikoa bezain sendagai dira. ■